ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP. ZENBAKIA	2019IPLE0005
SAILA	IDAZKARITZA
GAIA	2019-06-15 OHIKO OSOKO BILKURA

2019-06-15eko EZOHIKO PREMIAZKO UDALBATZA

Bertaratuak
- IÑAKI ORBEGOZO ARROSPIDE
- MIKEL GALARZA ARRUE
- ALAZNE URKIZU GALARRAGA
- AINGERU GALARRAGA BARANDIARAN
- AITZIBER ORBEGOZO ARROSPIDE
- LARRAITZ EZEIZA ARTOLA
- UNAI DORRONSORO ARTOLA

Idazkaria
- OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA

Bilkurari hasiera 16:00tan eman zaio.

AZTERGAIAK:

1. Adineko mahaia eratzea.
2. Udala eratzea.
3. Alkatea aukeratzea.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- Adineko mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluak dioenari jarraituz, zinegotzi egiaztagutunak Idazkaritza Nagusian jaso ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera.

Erabakia

Adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Mikel Galarza Arrue

Zinegotzirik gazteena: Aingeru Galarraga Barandiaran

Idazkaria: Oihan Ostolaza Arruabarrena

2.- Udala eratzea

Adineko mahaiak zinegotzi egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta eskualdeko hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, zinegotziek konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute.

Erabakia

Zinegotzien gehiengo osoa Osoko Bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du.

Jarraian, idazkariak agiri hauek aurkeztu dizkio udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten: a) kutxako kontaketaren agiria; b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak.

3.- Alkatea aukeratzea

Albizturren zinegotziak lortu dituen hautagaitza bakarra Albiztur Bizituz izan da, eta beraz, beraien alkategai Iñaki Orbegozo Arrospide alkate hautagai bakarra.

Bozketa burutu da eta aho batez Iñaki Orbegozo Arrospidek aldeko 7 botu lortu ditu.

Erabakia

Bozketak erakusten duenez, Iñaki Orbegozo Arrospide da alkate.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Ondoren, Iñaki Orbegozo Arrospidek onartu egin du alkate izatea. Horrela, bada, udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebehar guztiekin. Horrenbestez, Iñaki Orbegozo Arrospidek hartu egin du alkate kargua.

Bilkura amaituta, agiri hau egin dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatu eta erabakitakoa jasotzeko.

Albizturren, 2019ko ekainaren 15ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:12:36 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:30:00 +02'00'